ZIKLOEN GAINEAN LEHIOAK

Jendeak, artoz egina, artoa egiten du. Jendeak,
artoaren haragi eta kolorez sortua, aitzurtzen du
artoarentzat sehaska eta lur onez estaltzen du eta
belar gaiztoez garbitzen eta ureztatzen eta hitzegiten dio
maite duten hitzak. Eta artoa hazita dagoenean
artozko jendeak harri gainean xehatzen du
eta altxatzen du eta txalotzen du eta suaren amodioan
etzanda jartzen du, artozko jendearengan
jarrai dezala artoak lur gainean ibiltzen hil gabe.

Eduardo Galeano

Erakuts eiezu zuen seme-alabeei guk geureei erakutsi diegula
lurra gure ama dela. Lurrari gerta dakioke guztia
lurraren seme-alabeei gertatuko zaie. Gizakiek lur gainean txistuka ari badira,
bere buruari txistuka ari dira.
Hau da dakiguna; lurra ez da gizakiarena; gizakia da lurrarena.
Gizakiak ez zuen ehotu bizitzaren sarea; bera hari bat baizik ez da.
Sareari egiten diona, bere buruari egiten dio.
Seatle (larru gorri) buruzagiak 1854ean Amerikako Estatu Batuetako Lehendakariari idatzitako eskutitzatik hartua

"Gaur egun Ama Lurra larri gaixo dago. Planeta sukarrez. Inoiz ez da ikusi elurmendi eta glaziarrak desagertzen. Inoiz ez da ikusi animali eta landare milaka espezie desagertzen. Inoiz ez gara hainbeste hondamendi sozial eta ingurugirokoen lekuko izan, eta hondamendiak geroz eta maizago eta latzagoak dira.

Historiaren gaurko unea erabakiak hartzekoa da, naturak gure ordez hartu aurretik. Planetaren tenperatua gorantza badoa eta ez badugu ezer egiten, aldaketa klimatikoaren eraginak zorigaiztoko ondorioak ekar ditzake planetarentzat, gizadiarentzat eta bizitzarentzat.

Ez dugu denbora askorik. Azkar xamar ekin behar diogu auziari. Hasi berria den milurteko hau Bizitzaren Milurtekoa, Esperantzaren Milurtekoa eta naturaren eta gizakioen arteko Armoniaren Milurtekoa behar du izan.

Horregatik proposatzen dut 10 agindu hauek planeta, gizadia eta bizitza salbatzeko.

1. KAPITALISMOAREKIN AMAITU

Aldaketa klimatikoa gizakien jardueraren ondorioa da. Ez dago honetaz zalantzarik. Milaka zientzilarik hitzegin dute horretaz. Dudarik gabe datozen hamarkadetan tenperaturaren igoerak ondorio izugarriak sorraraz ditzake.

Orain badakigu planetaren temperatura datozen 100 urteetan bat/sei gradu zentigrado tartean igotzen bada, munduko fauna eta floraren espezie guztietatik heren bat edo bosten bat desagertuko liratekeela. Igoera horrek, gainera, milioika pertsonen bizileku diren uharte eta kostaldeak urazpiratuak izatea erangiko luke.

Denok dakigu planetaren beroketa orokorra karbono dioxidoaren igorpenagatik dela. Eta denok dakigu karbono dioxidoaren igorpena gertatzen dela petroleo eta bestelako energia fosilak gehiegi erabiltzeagatik. Horregatik mundu guztian petroleo gutxiago kontsumitzeko, karbono igorpenak gutxitzeko, zaborra berziklatzeko eta inguru giroa babesteko kanpainak egiten dira.

Zientzilariek esan digute, haatik, kanpaina hauek ez dutela planetaren beroketa orokorra frenatu.

Gu, herri indigenok, badakigu kanpaina hauek ez diotela Ama Lurraren gaixotasunik larrienetakoa sorrarazi duen egiturazko kausari aurre egiten.

Badakigu Ama Lurra sendatzeko eta osatzeko, duen gaixotasunaren izen abizenaren kontzientzia behar dela eduki. Eta gaixotasunaren izena hauxe da: sistema kapitalista mundiala.

Ez da aski esatea aldaketa klimatikoa planetan gizakiak burutzen duen jardunaren emaitza dela. Esan beharra dago sistema bat dela, pentsatzeko eta sentitzeko era bat, aberastasuna eta pobrezia sorrarazteko modu bat, “garapen” eredu bat dela amildegiaren ertzetara eramaten gaituena.

Sistema kapitalistaren logika da planeta errausten ari dena, gauza guztien gainetik etekina eta etekina gehiago ateratzearen logika. Enpresa transnazionalen logika da, horien interesa soilik baliabideak handitzea eta kostuak jeixtea bait da. Amaierarik gabeko kontsumoaren logika da, merkatu eta baliabide naturalak eskuratzeko tresna gisa gerra erabiltzearen logika da, eta bost axola baldin eta merkatu eta etekin gehiago eskuratzearren basoak desegin, langileak ustiatu eta langabezira bota eta gizabizitzarako oinarrizkoak diren zeribitzu sozialak pribatizatu behar badira.

Lehiakortasunean eta etekinean, sistema kapitalistaren motorrean, bilatu behar dugu aldaketa klimatikoaren iturria, kausak eta azalpenak.

Kapitalismoarentzat ez dago begirunerik merezi duen objekturik.. Kapitalismoaren eskutan dena merkantzia bihurtzen da: ura, lurra, giza-genoma, antzinetako gure kulturak, justizia, etika, heriotza…bizitza bera. Dena, guzti-guztia, erosi eta saldu egiten da kapitalismoan. Aldaketa klimatikoa bera merkantzia bihur daiteke.

Ezin dugu geure burua engainatu. Kapitalismoak irauten duen bitartean aldaketa klimatikoaren ondorioak mantenduko dira; kapitalismoak irauten duen bitartean karbono igorpenak gorantza egingo du, nekazal-muga hedatuz joango da eta zaborra planeta estaltzen joango da. Ez diezaiogun geure buruari engaina: bizitza aske eta duinaren helburua bateraezina da kapitalismoaren bizimoldearekin.

Aldaketa klimatikoari buruzko eztabaida serio eta benetakoari hasiera eman nahi badiogu jakin beharra dugu bi bizimolde, bi kulturen arteko borroka dela: zaborra eta heriotzaren kultura eta bizitza eta pakearen kulturaren artekoa. Hau da aldaketa klimatikoari buruzko ezbaiaren muina.

Planeta gordetzeko, bizitza eta giza-espeziea bera babesteko, kapitalismoarekin amaitu behar dugu.

2.- GERRARI EZEZKOA EMAN

Ez dago Ama Lurrari eta bere seme-alabei eraso zitalagorik egiterik gerra baino. Gerrak bizitza desegiten du. Ezer eta ez inor ezin da gerratik baztertua gelditu. Borrokan dihardutenek sufritzen dute eta gerra elikatzeko ogirik gabe gelditzen direnek ere. Gerran, Lurra eta bizianiztasuna saminetan dago. Gerraren ondoren ingurugiroa ez da inoiz berdina mantenduko.

Bizitza eta baliabide naturaletan zarrastelkeriarik handiena gerra da. Boliviartarrok badakigu zer den gerra. XVIII mendean, Pazifikoko gerran, gure itxasora bidea galdu

genuen. Guano, salitre eta kobrea kontrolatzearren Txilen ezarritako enpresa ingelesek sustaturiko gerra izan zen. Chacoko gerran, 1932-1936 urteen artean, 90.000 soldaduk eskeini zuten bizitza. Standard Oil eta Shell petroleoaren transzionaleen dirugose eta grinak sustaturikoa izan zen. Galdu genuen ere, goma eta kautxoz lurralde aberatsa zelako, Acre boliviartarra.

Arrazoi historiko hauek direla eta gure Estaduaren Konstituzio Politiko berrirako egitasmoan artikulu bat jarri dugu, zeinean esaten da garbi:

"Bolivia estatu pakezale da, pakearen kultura eta pakerako eskubidea sustatzen du, hala nola kontinente honen eta munduko herrien arteko lankidetza, elkarrekiko ezagutza, berdintasunezko garapena eta interkulturalitatearen zabalkundea, estatuen burujabetzarekiko begirune osoz. Boliviak, estatuen arteko eztabaida eta istiluen konponbide-tresna gisa, eraso-gerra guztiak baztertzen ditu." (10. art).

Orain, XXI mendean, gerrak sofistikatuagoak dira, bainan gerrara daramatzaten arrazoiak berdintsuak dira. Gaur, haatik, munduko herriek gerrara zuzenduriko baliabideen zarrastalkeria salatu ahal izateko informaziorik badugu.

IRAKEKO GERRA ETA BEROKETA OROKORRA

AEB-ak Irakeko gerran gastatu duen guztiarekin, beroketa orokorra joera murrizteko energia berriztagarrien inbertsio guztiak ordaintzeko beharrezko dirua estali zitekeen.

Irak-eko gerraren ondorio izan dira, gutxienez, 2003tik hona CO2ko 141 tona metriko. Kantitate hau 25 milioi kotxeren ixurketaren baliokide da.

Gerraren ixurketak herri batenak bait liran kontabilizatuko balitzateke, herrialde horrek urtean 139 herrialde botatzen dutena baino CO2 gehiago botako luke.

* Barack Obamak hitz eman du "energia berdearen hurrengo belaunaldiaren teknologia eta azpiegituretan 150.000 dolar jarriko dituela hurrengo 10 urteetan". AEB-ak ia kantitate hori gastatzen du Irak-en 10 hilabeteetan.

Munduko herrialde guztien aurrekontu militarra 1.100 bilioi dólar/urteko baino gehiagokoa da. Estatu Batuak aurrekontu horren erdiaren erantzule da; Japoi, Bretaina Handia, Frantzia eta Txina aurrekontu horren %17aren erantzule dira. Zenbait azterketan erakusten da urtero 24 bilioi dolarrekin –gerrarako aurrekontuaren %2,6a- planetan gosez dagoen jendetza erdira jetxi daitekeela. Beste datu bat: 12 biloi dólar hutsekin -gerrarako aurrekontuaren 1,3 soila- mundu osoko emakumeen osasun erreproduktiboa bermatu daiteke.

Zifra hauetan oinarriturik, munduko herriek badugu eskubiderik galdera hau egiteko: nola ulertu daiteke esku batekin aldaketa klimatikoaren aurka borrokateko milioika dolar biltzea, eta, beste eskuarekin, heriotz eta suntsipen aurrekontuetan milaka milioi dolar gastatzea?

Erantzun bakarra du galdera honek: kapitalismorik ez dago gerrarik gabe, gerra kapitalismoaren industria handienetako bat da, mundu mailan bigarren industria handiena.

Berriro ere, ezin gara engainutan erori. Planeta salbatu nahi badugu heriotz eta suntsipenaren industriarekin bukatu beharra dugu; Pakearen eta Bizitzaren kultura geureganatu, munduko gatazka eta istiluak konponbidean gida izan dadin; arma-

laisterketari uko egin behar diogu eta planetaren bizitzaren zaintza bermatzeko desarmeari ekin behar diogu.

Gu, planetaren herri indigenok, munduari esan behar diogu, geure ustez, heriotz industrian xahutzen diren milioika eta milioika dolar horiekin fondo amankomun handi bat egin behar dela planeta, gizadia eta bizitza salbatu ahal izateko.

3.- IMPERIALISMO ETA KOLONISLISMORIK GABEKO MUNDUA.

Sistema kapitalistak bere sabel-barnean darama imperialismo eta kolonialismoa. Bestearen gain jartzea, bestea menperatzea, bestea kontrolatzea dira garapen-eredu horren "bizitzeko moldeak", lehiakortasunean oinarritua bait dago eta ez osagarritasunean.

Gu, munduko herri indigenok, kolonialismo eta inperialismoaren ondorioak gehien sufritu dugunok gara. "Zibilizazioaren" izenean geure lurratik gabetu gaituzte, eta gainera gure nortasunaz gabetu nahi gaituzte. "Zibilizatu" nahi izan gaituzte arimarik gabeko animaliak bait ginan.

Kolonialismoa eta inperialismoaren abiapuntua da mundu bat badagoela aurkitzeko, konkistatzeko, menpean hartzeko mundua.

Mendetan, imperialistek eta kolonialistek ideia bat sarrarazi nahi izan digute: Iparraldea dela erakutsi behar duena eta Hegoaldea ikasi behar duena.

Kolonialismoak eta imperialismoak ikusten duten mundua, mundu zatitua eta pitzatua da. Alde batean beraiek daude, beste aldean gu, munduaren gainontzekoa. Mendetan zehar mundua bitan zatitu dute: progreso eta aurrerapen mundua, eta atzerapenezko mundu abantonatua, mundu "garatua" eta mundu "azpigaratua".

Orain, berriz, ingurugiroaren tragediaren aurrean, gertatzen da "denok" omen garela erantzule, "garatuak" eta "azpigaratuak". Hau ez da egia, hau iruzurra da.

1860 ezkeroztik, Europak eta Iparramerikak, karbono dioxidoaren igorpenen %70a bota dute, eta horiek dira planeta gainberotzen duen negutegi efektua sorrarazten dutenak; baso, flora, fauna, ura, minerala eta petroleoaren ustiatzaile nagusiena Iparralde "garatua" da. Iparralde "garatua" da bere hazkunde ekonomikoa baliabide mundialen demasako erabileran eta Hegoaldeko herrialdeen arpilaketan oinarritu duena.

Ez gara lakioan eroriko: Ipar "garatua" da Hegoaldearekin eta mundu osoarekin zor ekologiko ikaragarria duena! "Garapen" kapitalistaren munduan eta herrialde guztiak biltzen dituen foroan, Nazio Batuen Erakundean, ez gara herrialde guztiak berdinak. NBEan badira lehen mailako eta bigarren mailako herrialdeak. Lehen mailakoak dira beto eskubidea dutenak. NBE osatzen duten 189 herrialdeetatik bost herrialdek dute, beti beraiek, Segurtasun Kontseiluan boto bakar batez edozein akordio galarazteko boterea. Hau da XXI mendean sarturik imperialismo eta kolonialismoaren beste adibide bat. Gu, munduko herri indigenok, Nazio Batuen Segurtasun Kontseilua benetan demokratizatzea beharrezkoa dela uste dugu. Ez da beto eskubide duten herrialde iraunkorrik egon behar. Denok eskubide berdinak behar ditugu.

Eskubide berdineko nazioen munduak aniztasuna eta herrien arteko asimetriak onartzen dituen mundua izan behar du, herrialde eta erregioen artean ematen dira des-balantzeak kontutan hartzen duen mundua, ekonomia maila txikiagokoekiko begirune eta tratu desberdindua eta berezia sustatzen duen mundua.

Ezin da mundu desberdin batean berdintasunezko baldintzetan lehiatu. Lehiakortasunaren ordez osagarritasuna behar dugu. Berezitasunak, diferentziak, herrialde eta erregio bakoitzeko indarguneak eta ahuleziak kontutan hartu behar dira. Elkarrekin osatzea, eta ez elkarren kontra lehiatzea, bilatu behar dugu.

Mundu poloanitza imperialismo eta kolonialismo gabeko mundua da, mundu orekatuagoa, botere gune hegemonikorik gabe, anitza eta osagarria.

4.- URA, BIZIDUN GUZTIEN ESKUBIDEA.

Urarik gabe bizitzarik ez. Ur gozoaren gordailua txikitzen ari da mundu mailan. Bost pertsonetatik batek ez du ur edangarria eskuratzerik. Hirutik batek ez du ura saneatzeko bitartekorik. Gizakiok jasaten ditugun krisi sozial eta natural guztietatik, urarena da gure biziraupenari eta planetarenari gehien eragiten diona.

Aurreikuspenen arabera, datozen 20 urteetan, ur hornidura biztanleko, bataz beste, heren bat gutxituko da mundu mailan. Hiru dira hondamen honen arrazoiak: populazioaren hazkundea, kutsaduraren hazkundea eta aldaketa klimatikoa.

Nazio Batuen informe baten arabera, mende honen erdialdera, eta kasurik hoberenean, 2.000 milioi pertsona ur-exkaxia sufrituko du 48 herrialdeetan.

Ez dute denok ura eskuratzeko erreztasun bera. Herrialde “garatuetan” jaiotako haurrek, “garatze bidean” dauden herrialdetakoek bainan 30 edo 40 ur gehiago kontsumitzen dute. Ukituenak pobreak izaten jarraitzen dira, izan ere “garatze bidean” dauden herrietako populazioaren %50a ur kutsatuzko iturrien arriskuaren mehatxupean dago. Mende honen erdialderako planetak ur gozoko 18.000 kilometro kubiko galduak izango ditu, urtero lurrak ureztatzeko erabiltzen dena bainan bederatzi aldiz handiagoa.

NBE-ak eratu duen Aldaketa Klimatikorako Gobernu-arteko Mahaiaren (IPCC) informearen arabera, 2020 urterako Sahara azpiko Afrikako biztanleetatik 250 milioik ur-exkasiari aurre egin beharko diote, eta zenbait herrialdeetan elikagaien ekoizpena erdira jetxi daiteke.

Asiako hainbat zonalde, lurralde menditsuetako, Himalaya adibidez, glaziarren urtzeagatik arriskuan aurkituko lirateke. Bolivian mendiburu elurtuak pontxo txuria galtzen ari dira. Latinoamerika eta Cariberako Komisio Ekonomikoaren neurketen arabera “La Niña” izeneko ekaitzaren ondorioz izan diren uholdeek eragindako kalteak 517 milioi dolarretakoak izan dira, Boliviaren PIBaren %5,4a.

Uraren krisi mundial honi aurre egiteko, ura eskuratzea giza-eskubidetzat aldarrikatzen hasi beharra dago, eta ondorioz, pribatizatu ezin daitekeen zerbitzu publikotzat hartu.

Ura pribatizatzen eta merkantzia bihurtzen bada, ezingo dugu denontzat ura bermatu. Funtsezkoa da ura giza eskubide gisa onartzea.

Gu, planetaren herri indigenok, esaten diogu munduari: ura, bizidun guztien eta Ama Lurraren beraren eskubide bezala, merkatu libretik eta merkatal-akordiotik babestua eta gordea behar du ; ura, guztion eskubide denez, Munduko Merkatal Erakundetik aparte gelditu behar da; urak eta ur edangarriaren zerbitzuek, herri guztien eskubide diren aldetik, merkatu eta etekinaren legeetatik at egon behar dute.

Herri indigenon asmoa eta ahalegina Uraren Biltar Orokorra antolatzea eta sustatzea da: ura giza-eskubide gisa bermatzeko, ur iturriak babesteko eta gutxi batzuren eskutan hartuak eta pribatizatuak izan daitezen ekiditeko.

Ura giza eskubide bezala eta bizidun guztien eskubide bezala bermatzea planeta, gizadia eta bizitza salbatu ahal izateko atzeratu ezin daitekeen eginbeharra da.

5.- ENERGIA GARBIAK ETA NATURAREKIN LAGUNKOIAK.

Datu batzuren laguntzaz ulertuko dugu zer ari den munduan pasatzen energien erabilerari eta horrek naturarekin duen zer ikusiari dagokionez.

1751ean, erregai fosilen erreketatik eratorritako karbono dioxidoen igorpena 3 milioi bat tonakoa omen zen. 2006ean 8.379 milioi karbono dioxido tona igorri ziren atmosferan.

Gaur egun aurreko 650.000 urteetako edozein momentuan baino karbono dioxido gehiago dago atmosferan. 2007an, karbono dioxidoaren kontzentrazioa atmosferan iraultza industriala hasi zen garaikoa bainan %37 aldiz gehiagokoa zen.

Bi mende soiletan milioika urteetan sorturiko energia fosilaren zati handi bat kontsumitu da.

XIX mendearen hasieratik azken 1.000 urteetako urterik beroenak bizi izan ditugu.

NBEaren Aldaketa Klimatikorako Gobernuarteko Taldearen kontseilua da karbono igorpenak %60ean gutxitzea. George Bush Lehendakariaren bezalako gobernuek muzin egiten diote kontseilu honi. Are okerrago, gobernu honek ez du Kyotoko Akordioa bete nahi, nahiz eta akordio horretan ezarri den karbono igorpenaren gutxitze tasa... %8koa bakarrik izan!

Eta zer esan petrolioaz? Petrolioaren garaiaren amaieraren hasiera bizi gara. Petrolio ekoizpenaren erritmoa orain arte bezala mantentzen bada, eta mehategi berri eta handiak aurkitzen ez badira, gaur egungo mundu osoko erreserbak apenas 50 urtetarako dira. Hazitzen ari diren petrolioaren erreserba mundial bakarrak herrialde arabiarrenak dira, bainan uste da 2010etik aurrera murrizten hasiko direla. Mundu industrializatuaren inoiz ikusi gabeko krisi energetikoa hurbiltzen ari dela dirudi.

Denok dakigun bezala, petrolioaren salneurria bizi egin du gora azken bi hamarkadetan, 1988an 18 dolarreko kupela 2008an 124 dolarretara igo da. Petrolioaren prezioa sei aldiz altuagoa izanik ere, karbono dioxidoaren igorpenak ez dira gutxitu. Itxura guztien arabera egoera honek Iparrameriketako herrialdeei ikatza berriro ekoiztera behartuko die. Egitan, ikatzez elikaturiko energia sortzeko ekoizpen-plantak nabarmen hazi dira Estatu Batuetan. 2004ko otsailean, 36 estatu baino gehiagotan ikatzez elikaturiko elektrizitatea sortzeko 100 planta berri egiteko planifikazioa egina zegoen. Planta horien erdia martxan jartzen badira, karbono igorpenaren gorakadaren eragile berri bat izango dugu.

Panorma honi erantsi behar zaio bioerregaiak deiturikoen ekoizpena: ez da aldaketa klimatikoaren arazoaren irtenbidea eta are larritu ere egin dezake.

Nekazaritza eta Elikaduraren Nazio Batuen Erakundearen txosten batek esaten du elikagaien eskuragarritasuna mehatxatua egon daitekeela bioerregaien ekoizpenarekin, lurra, ura eta bestelako baliabideak elikagaiak ekoiztea zuzentzen ez diren momentutik. Fenomeno hori bizitzen ari gara Bolivian.

Denok dakigun bezala, artoa eta sojaren demandak gora egin du oso azkar azken urteetan, bioerregaiei buruz hitzegiten hasi zen momentutik, 2000 urte ondoren segituan. Data horretatik hona bi produktu horien prezioak gora egin du, eta, horrela izanik, geroz eta hektarea gehiago erabiltzen da bi produktu horiek ekoizteko eta gutxiago, adibidez, garia ekoizteko. Espero zitekeen bezala, honen ondorioa izan da gariaren prezioaren igoera, eta ondorioz, hirina eta ogiarena. Sojaren prezioaren igoerak, bere aldetik, sukaldaritzarako olioen preziotan izan zuen eragina. Oiloa, ganadu-haragia eta esnekiak ere gora egin zuten, animali guzti horiek artoa eta sojaren kontsumitzaile handiak bait dira. Herri xehearen ekonomiaren gain etorri diren ondorio txarrezko kate guzti hau bizitzen ari gara momentu honetan Bolivian.

Gaur egun, Munduko Banku berak eta Nazioarteko Moneta Fondoak ere esaten dute elikagaien prezioaren igoera orokor hau, neurri batean behintzat, bioerregaien ekoizpenaren ondorio dela.

Eta Estatu Batuetako egunkari ezagun batek, The New York Times-ek, esaten du mundu “garatua” eragin negatiboak sorrarazten ari dela krisi ekonomikoan “bioerregaien ekoizpena babestuz”.

Honi gehitu dakioke Kimikako Nobel Saria Paul Crutzen jaunarekin harremanetan dagoen zientzilari talde batek egindako txostena, zeinean esaten den bioerregaietarako erabiltzen diren lurretan erabiltzen diren fertilizanteekin oxiko nitroso kantitate handiak sortzen direla, eta gas hori dela “negutegi efektua” deiturikoa sorrarazten duten gasetako bat.

Datu guzti hauek bildurik, ez gaude oker esaten dugunok gasolinaz autoak elikatzeak, gizakiei elikagaiak kentzea esan nahi duela.

Planetak energiaren kontsumo gehiegia kontrolatzeko eta energia alternatiboak garatzeko beharra du. Eguzki-energia, geotermikoa, eolikoa, maila txiki eta ertainako hidroelektrikoa sustatu behar ditugun aukerak dira.

Energia garbi eta naturarekin lagunkoi direnen garapena da planeta, gizadia eta bizitza salbatzeko beste eginbehar funtsezkoentako bat.

6.- AMA LURRAREKIKO BEGIRUNEA.

Ezin da Lurra baliabide natural gisa soilik ulertu. Aldaketa klimatikoaren krisiaren eta energiaren krisi osoaren atzean mundua ulertzeko bi moduen arteko borroka dago: ikuspegi batarekin lurra merkantzia bihurtzen da, eta bestearekin, berriz, guk planetako herri indigenok defenditzen dugun ikuspegiarekin, lurra izaki bizidun guztien etxea eta altzoa da. Lurra bizitza bera da.

Gaur egun, gure Ama Lurra gaixo dago, kapitalismoz gaixo. Eta edozein ama gaixo bezala, Ama Lurrak ezin die apenas bere seme-alabei babesa eman. Araketa desberdinek erakusten digute planetan diren 40.000 eta zerbait gehiago animali-espezieetatik 12.000 desagertzeko zorian daudela. Zortzi txorietatik bat desager daiteke betirako. Lau mamiferoetatik bat mehatxupean dago. Lau insektoetatik hiru betirako desagertzeko arriskuan daude.

Ikaragarria eta sinisgaitza da jakitea Lur planetan bizitzaren historian espezie bizien desagerpen larrienaren krisia bizitzen ari garela. Gaur egun espezien desagerpenaren tasa 100 aldiz azkarragoa da gizakiok planetan ez ginen garaietakoa baino. Sinisgaitza

da jakitea gaur bertan hiru aldiz ur gozo dagoela bildua urtegietan planetako erreketan baino.

Ezin dugun gure Ama Lurra kutsatzen jarraitu. Ozeano Pazifikoaren erdian, esaten da azterketetan, plancton kilogramo erdi bakoitzeko plastikozko hiru kilo omen daude. Eta planctona da, aldiz, arraien elikagaia.

Ezin dugu onartu sistema kapitalistak lurra merkantzia soil bat izatera murriztea. Lurra eta bioaniztasuna ez dira sal daitezkeen, eta merkatuaren legearen arabera pilatuak izan daitezkeen ondareak. Gu, Boliviako herri indigena eta nekazariak, gaur egun bizi gara, geure haragitan, lurraren merkantilizazioaren arriskua. Lur jabegoa esku gutxitan pilatua egotea da injustizia sozial guztien iturria eta lurraren beraren atropello handienena. Lurrakin espekulatzeak, lurra gainustiatzeak eta lurra akumulatzeak desoreka sozial eta anbiental handiagora baizik ezin dezake eraman.

Lurra eripide kolektiboekin erabili behar da, osagarritasun eta begirunezko erizpideekin. Gizartea bere osotasunean da kudeatu behar duena, erantzunkizunez eta armoniaz, lurra eta gordetzen dituen baliabide guztiak.

Ama Lurrarekiko begirunea eta bere kudeaketa kolektiboa funtsezkoak dira planeta sendatzeko eta bizitza salbatzeko.

7.- OINARRIZKO ZERBITZUAK, GIZA ESKUBIDEAK

Gu, planetako herri indigenok, hezkuntza-, osasun-, ura-, komunikazio-, garraio- eta informatikara iritsi ahal izatea-ren oinarrizko zerbitzuak giza eskubideak direla aldarrikatzen dugu. Giza eskubideak dira gizarte bizitzarako funtsezko zerbitzuak direlako. Horregatik, oinarrizko giza eskubideak direlako, zerbitzu horiek ezin dira negozio pribatua bihurtu, eta zerbitzu publikoen oinarri bihurtu behar dira.

Zein da gaur egun munduko egoera ezagutzaz ari bagara? Ikusten duguna da, herrialde eta erregio batzutan ezagutzaren oasi txiki batzuk bazterketa eta atzerapen basamortu handiren erdian. Hau izan da, neurri handi batean, azken hamarkadetan burutu den hezkuntza sistemen pribatizazioaren emaitza. Hezkuntza publikoaren kalitatea, salbuespen gutxirekin munduan, matxuratzen joan da. Estatuen hezkuntzarako aurrekontuak gutxitzen joan dira lehen mailako hezkuntzan, eta produkziora zuzendutatako prestakuntzan jarri dute arreta. Hezkuntza, orokorrean, eta irakurtzeko eta eskribitzeko eskubidea, gehien dutenen patrimonio bihurtu dira, eta pobreentzat, planetako populazioaren gehiengoarentzat, helezinezko esperantza.

Eta pentsatzen jarrita noren eskutan dagoen zientzia eta teknologia planetan, berriro ere uharte txikitxo pribatizatu batzuk aurkituko ditugu bazterketa, atzerapen itxaso izugarri handien erdian. Enpresa transnazional handiak, jabego intelektualaren sistema konplexu baten bidez, planetaren zientzia eta teknologiaren kostua mantentzen eta ordaintzen dute. Hezkuntza eta ezagutza esku pribatuetan egoteak helburu bakarra du: planeta heriotz zigorrez zauritzen ari den sistema kapitalista iraunkortu eta birrekoiztea. Ezagutzaren monopolioa haustsi eta ezagutza gizadi osoaren zerbitzura jartzeko funtsezkoa da hezkuntza giza eskubide gisa bermatzea, eta ondorioz, zerbitzu publiko bezala, gizarte osora irekia eta ezagutzara hurbiltzea demokratizatuz.

Inbestigazio zientifikoa ezin da pribatizatu. Estatuek, ezagutzaren emaitzeetara hurbiltze aske eta dohainekoa sustatuz, patente aske eta irekien bidez, garatu behar dute inbestigazioa, beraien eraginkortasun zientifikoa nola ekonomikoa erakutsi bait dute.

Osasunerako giza eskubidea, sistema kapitalistaren pean, letra hila bihurtzen ari da. Munduko herrialde gehientsuenetan osasungintza publikoa guztiz akatsduna da eta populazioaren zati batek bakarrik jasotzen du. Dirua dutenek bakarrik hurbildu daitezke osasun zerbitzuetara. Osasuna geroz eta gehiago negozio da eta ez edozein gizakiarentzako zerbitzua. Aseguru konpainia handiek eta osasun sistema pribatuek kontsumitzailetzat hartzen dute pertsona, merkantzia baten erosle gisa, eta merkantzia bihurtzen duten hori bizitza eskubidea da. Egoera larriagotzen da medikamentuen patenteen monopolio geroz eta handiagoa farmazia-enpresa handiren talde txiki batean esputan dagoelako. Medikamentu berrien inbestigazioaren finantziazioa ez da zuzentzen gizadiak jasaten duen gaixotasun handietara etekin gehien eman dezaketeenetara baizik.

Osasuna giza eskubidea da eta ezin da negozio pribatu gisa hartu, denontzako zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezko bezala mantendu eta indartu egin behar da.

Gaurko mundua telekomunikazioen mundua da, garraioarena eta informatikarena. Zerbitzu hauek ezin dira negoziorako okasio bezala hartu, besteekin komunikatzeko posibilitaterik gabeko populazioa bakartua eta baztertua gelditzen delako. Gaur egun, eta zerbitzu hauen garrantzia handia izanik ere, estadistikek erakusten dute inbertsioak zerbitzu hauek ordain dezaketen eta etekin mamitsuak sor ditzaketen sektoreetan kontzentratzen direla. Komunikatzeko eskubidea giza eskubidea da eta ezin da transnazionalek kontrolatua egon. Gizartea bere osotasunean berreskuratu behar ditu zerbitzu hauek zerbitzu publikoak bihurtzeko, unibertsalak eta populazio guztiarentzat hurbilgarriak.

Planeta salbatzeko funtsezkoa da eskubide hauek populazio osoarentzat bermatzea. Eskubiderik gabeko populazioa Ama Lurra defendatzeko gaitasunik gabeko populazioa da. Horregatik gure egitekoa, zerbitzu hauek kudeaketa publiko eta sozial eraginkorraren bidez giza eskubideak izan daitezen bermatzea da.

8.- BEHARREZKOA KONTSUMITU ETA LEKUZ-LEKU BERTAN EKOIZTUTAKOA KONTSUMITZEA LEHENETSI.

Oparotasun eta eralketa munduan gosea dago. Egunero 100.000 petsona gosez hiltzen dira. “Azpigaratu” deituriko herrialdeetan gosea da heriotzen % 95en kausa. Bost segunduro hamar urte baino gutxiagoko haur bat hiltzen da gosez. Lau minuturo, norbaitek ikusmena galtzen du Bitamina A falta zaiolako. 845 milioi pertsona dago larriki azpielikaturik, gose iraunkorraz elbarrituak.

FAOren behaketek adierazten dute gaur egungo nekazal ekoizpen indarrekin 12.000 milioi pertsona elikatu daitezkeela, hau da, gaurko munduko populazioaren bikoitia. Haatik, ez da munduko populazio guztia elikatzeko nahikoa ekoizten, merkatuak eta geroz eta handiagoa den etekin-grinak agintzen duena soilik ekoizten bait da.

Kontsumismoarekin bukatu beharra dago, eralketarekin eta luxuarekin. Planetaren alderik pobreenean milioika pertsona hiltzen dira urtero gosez; alderik aberatsenean, aldi berean, milioika dolar xahutzen dira obesitatea borrokatzeko. Gehiegi kontsumitzen dugu, baliabide naturalak eraltzen ditugu eta Ama Lurra kutsatzen duen zaborra ekoizten dugu.

Aldaketa klimatikoaren krisiari eta krisi energetikoari gehitzen zaie orain elikagaien krisia, geroz eta handiagoa, eta aurreko bi krisi horiekin lotua dagoena. Elikagaien prezioa garestitu da % 45ean azken bederatzi hilabeteetan. Zekaleek %41eko gorakada izan dute; landaretako olioak %60ean igo dira eta esnekiak %83an. CEPAL-ek kalkulatzen du elikagaien prezioen %15eko igoerak txirotasuna hiru puntutan

igotzen duela, %12,7tik %15,9ra. Petrolio kupelaren prezioaren igoera nekazal produktuen kostua areagotu du. Horri gehitu behar zaizkio aldaketa klimatikoak planetaren hainbat erregiotan eragindako hondamendi naturalen ondorioak. Bioerregaien ekoizpenak eragiten du ere elikagaien prezioen gorakadan.

Elikagaien krisi hau areagotu da beste eragile batengatik: merkatu librea. 2006ean elikagaien esportazioa %8an igo zen aurreko urteekin alderaturik. Haatik, elikagaiak per-capita justu %1,1 igo zen bederatzi urteetan. Elikagaien banaketa geroz eta gehiago merkatuaren presioen arabera egiten da eta ez populazioaren beharren arabera. Nekazaritzako produktuen esportadore handiak gose kronikoaz jotako populazioak dituzte. Elikagaien ekoizpena eta komertzializazioa sozialki arautua egon beharko luke eta ezin da merkatu librearen indarren eskutan utzi.

Herrialdeek lehenetsi beharko lukete bertan ekoiztutakoaren kontsumoa. Bere helmugara iristeko munduaren erdia ibili behar duen produktua ezin da merkeago izan bertan ekoiztutakoa baino. Bainan, kontutan hartzen badugu ingurugiroari egindako kaltea eta energiaren kontsumoak sorrarazten duen karbono igorpena, orduan uler genezake osasuntsuago dela planetarentzat eta gizadiarentzat bertan ekoiztutakoaren kontsumoa. Eredu neoliberalak nekazaritza komertziala agro-esportatzailea lehenetsi zuen. Gaur egun joera horri bira oso bat eman beharko genioke eta geroz eta gehiago barne-kontsumorako ekoizpena bilatu, bereziki elikagai eta oinarrizko produktuen kasuan. Kanpo-komertzioa ekoizpen lokalaren osagaia izan beharko luke. Inolaz ere ezin dugu kanpo-komertzioa lehenetsi barne ekoizpenaren kaltetan. NBEko txosten batek dioenez garia bezelako oinarrizko elikagaien merkatu globala sentiberakorregia da prezioen ezusteko aldakuntzen aurrean, eta horregatik kontsumitzen duten gehiena inportatzen duten herrialdeak goseteak ezagutzeko arrisku handiagoan daude.

Ezin dugu, produktibitatearen hazkundearen izenean, elikagai genetikoki aldatuen hedapena ontzat eman. Natura ezin da laborategi baten apeten menpe egon etorkizunean transgeniko deituriko produktuen ondorioak jasan gabe.

Beharrezkoa dena konsumitu eta bertan ekoiztutakoaren kontsumoa lehenestea premiazkoa da planeta, gizadia eta bizitza salbatu ahal izateko.

9.- KULTURA ETA EKONOMIA ANIZTASUNA ERRESPETATU

Kapitalismoak uniformizatu nahi izan gaitu, denok kontsumitzaile bihur gaitezen. Iparralderako garapen eredu bakarra dago, berea. Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Moneta Fondoaren errezetek herrialde gehienak krisi batera eraman dituzte. Haatik, Munduko Merkatal Erakundea tematzen da errezeta bakar horri eutsiz planetako herrialde guztientzat. Maila ekonomikorako eredu bakarraren parean akulturazio orokorraren prozesuak datozte, kultura bat bakarra imposatu nahian, moda bat bakarra, pentsatzeko eta gauzak ikusteko forma bat bakarrarekin: kapitalismoren ikuspegiarekin. Globalizazio kapitalistak, horrela, bizitzaren eta bere aniztasunaren aberastasuna suntsitzen du.

Gu, planetako herri indigenok, ez dugu mundu guztirako irtenbide bakarrean sinisten. Gizakiok anitzak gara. Nortasun bereziko herritan bizi gara, kultura berezia duten herritan. Kultura bat desegitea, herri baten nortasunaren aurka aritzea, gizadiari egin dakioke kalterik larriena da.

Gu, planetako herri indigenok, pentsatzen dugu ez dela izan eta ez dela izango bizitza-molde bakarra mundua salba dezakeena. Jakin badakigu mundu plural batean bizi garela eta horretan aritzen garela, eta mundu anitzak aniztasuna begirunez ontzat eman behar duela, aniztasuna bait da bizitzaren beste izena.

Kultura eta ekonomia desberdinen arteko errespetua eta osagarritasun paketsu eta harmoniatsua funtsezkoa da planeta, gizadia eta bizitza salbatu ahal izateko.

10.- OSOTASUNEZ BIZI

Sozialismo komunitario bat eraiki Ama Lurrarekiko armonian. Hau da munduan egoteko gure manera. Naturarekiko eta gizakiekiko harmoniaren ikusmira gure hau, eredu kapitalistaren ikusmira norberekoia, indibidualista eta pilaketariarekin kontrajarria dago.

Gu, planetaren herri indigenok, mundu justu, anitza, barnehartzaile, orekatu eta naturarekiko harmonikoaren eraikuntzan eskua bota nahi dugu herri guztiek Osotasunez Bizi dezagun.

Osotasunez Bizi esaten dugu ez bait dugu gura besteak baino hobeto bizitzea. Ez dugu sinisten progresoaren kontzepzio lineal eta pilaketarian, ezta ere bestearen eta naturaren kontura egindako garapen mugagabean. Elkar osagarritu behar dugu eta ez besteekiko lehiakorkerian erori. Konpartitu eta ez auzokoaz aprobetxatu. Osotasunez Bizi nortasun kulturalean, komunitatean, gure artekoan eta Ama Lurrarekiko harmonia erizpideetan pentsatzea da, eta ez sarrera per-kapita erizpideetan.

Planetako herri indigenok naturarekiko harmonian eraikitako sozialismo komunitarioan sinisten dugu. Herrian oinarrituriko sozialismoa, komunitateetan eta ez estatuko burokrazian, azken honek bere pribilejioak lehenesten bait ditu gizarte osoaren premien aurretik. Geure praktika indigenan agintariak komunitatearen zerbitzariak dira, eta ez komunitateaz baliatzen diren pertsonak. Sozialismo komunitarioa, komunitatearen interesak boteretsu batzuren pribilejioen aurretik lehenesten dituena da. Sozialismo komunitarioa ontasun komunitarioan etekin indibidualean baino lehenago pentsatzea da. Sozialismo komunitarioa giza eskubideen alde, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen alde borrokatzea da.

Bainan aldarrikatzen dugun sozialismo komunitarioa, iragan denboran porrotean bukatu duten beste ereduk ez bezala, ez du gizakiarengan soilik pentsatzen naturalezan eta aniztasunean baizik. Gauza ez da eredu desarrollista bakarrarekin jarraitzea, nahi ta nahi gabe industrializazioarekin ekin eta ekitea. Ez dugu mugagabeko progresoan sinisten gizakien arteko eta, funtsezkoa dena, Ama Lurrarekiko osagarritasunean eta orekan baizik.

Ez dugu alternatiba askorik. Edo kapitalismoaren eta heriotzaren bidetik amildegira jotzen dugu, edo naturarekiko eta bizitzarekiko harmoniaren bidetik aurrera egiten dugu.

Herri indigenok benetako aldaketa lortu arte hitzegiten jarraituko dugu. Gure ahotsa urrutitik dator. Gure ahotsa pontxo txuriak galtzen ari diren mendiburu elurtuetatik dator.

INDIOAK BIHOTZEZ PENTSATZEN DU LURRA BERE AMA DELA